

## AUZOLAN ESPERIENTZIAK

# Euskal ondarearen erakusleku

Nafarroako eta oro har Euskal Herriko ondarea eta memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin *Enneco*, haritzaren memoria egitasmoa martxan jarri du Nafarroa Bizirik herri mugimenduak. Euskal Herriko historia modu interaktiboan jasoko eta azalduko duen parkea moldatzeko asmoa dute Etxarri-Aranatzen. Proiektua auzolanean gauzatuko dute, eta haiekin lan egiteko deia luzatu diete herritarrei.

| MARTIN VICIOSO |



Ezkerreko irudian, parkera egindako bisita bat, parkerako eskultura egin duen Nestor Basterretxea artistarekin batera. Goian, basoa garbitzen.

OHIKO MUSEOAREN MOLDETIK aldenduko da *Enneco*: elkarreragilea izan behar duela azpimarratu dute, bertaratzen den ororen inplikazioa bilatu nahi dutela. Interpretazio zentroaren funtzioa ere izango du. Horregatik, gizarte zientzietan aditu direnen eta herritarren arteko topaketak egingo dira. Nafarroa Bizirik herri mugimenduko kideen ustetan, ikerketaren helburuak dibulgazioa izan behar du, gizarteak jaso behar baititu ekarpenak.

Egitasmoaren eta finantziazioaren plangintzan hiru fase bereizi dituzte: aurreproiektua, martxan jartzea eta proiektuaren garapena. Eremuaren moldaketarako auzolanak jada hasi dira, eta eraikin nagusia altxatzeari hurrengo urtean ekingo diote. Ateak 2016an irekitzea espero dute. Hala ere, gune irekia eta malgua izatea nahi dutenez, etengabeko garapenean egongo dela nabarmendu dute.

Nafarroa Bizirik fundazioko kide Patxi Abasolok maiatzean *Berriari* eskainitako elkarrizketan azpimarratu zuen krisi garaian horrelako egitasmo bat aurrera ateratzeko “aukera bakarra” auzolanean aritzea dela. Herri eragile eta eragile ekonomikoak elkartu nahi dituzte, eta Etxarri eta Sakanan ez ezik, auzolana egiteko deia Euskal Herri osora zabaldu dute. Orain arte, hemendik aurrera egingo diren lanak erraz-

ten jardun dira. Parkea egongo den basoa garbitu, zuhaitzak markatu eta bideak atondu dituzte.

Proiektuaren aurkezpenean, bultzatzaileek ikastolen sorrera gogorarazi zuten. Herritarren indarrak eta baikortasunez, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal eskola sareak ehundu zituzten. Orduko espiritu hura berreskuratuz *Enneco* eta beste hainbat proiektu aurrera ateratzea posible dela uste dute Nafarroa Bizirik fundaziokoek.

### Euskal Herriaren bihotzean

Parkearen kokapenaren aukeraketa ez da zorizkoa izan. Sakana harana estrategikoki kokatuta dago: erdigune geografikoan eta kultur ondare ugari herri eta eremuen artean. Halaber, azpimarratu dute bertako turismoa eta jarduera ekonomikoa sustatzeko proiektu garrantzitsua izan daitekeela. Izan ere, krisi ekonomikoak gogor jo du eskualdean, eta bisitariak dituzten arren, *Enneco* azken bultzada eman diezaiokeela uste dute.

Bertako eta kanpoko turismoaren erreferente bilakatu nahi dute. Abasolok Bilboko Guggenheim museoarekin alderatu du: “*Enneco* munduari garena erakutsiko dion gunea izango da”. ■

